

esango nuke. Gipuzkoarren *arraia*, maizago *arraya*, bere sustrai jatorretik hainbeste desberdindu delarik, ezta harritzekoa beste zerbaiten itxura hartzea. Eta, 130-gn. horrialdean irakurri geta-riarrei buruzko kanta:

*Getariarrak txoruak  
balia iltzera,  
arpoi-arpoia motza  
arriyai sartzera.*

Izan ere, txoruak izan behar harriari arpoiak sartu nahirik bazebiltzan. *A hincarlo en las piedras* itzultzen du Artetxek erderara. Baita *arriyai*, ez ote ahoz-aho zerbait bihurtua eta *arrayai* izan bere era jatorragoa? Hala dirudi. Askozaz jatorragoa zen *arrainai*-ren forma okertzetik heldu zaio nahasketa hori. Noski.

J. S. M.

SAN JUAN-TXIKI.—Eskuartearen I. Linazasoro-ren *La otra Gipúzcoa* liburu apaina, gure probintziako txoko galduak berebiziko onduen arakatzen ditutana. Holako liburu asko behar ditugu gure herria izango dan moduan ezagutzeko. Atseginez irakurri dut.

Lazkaoko San Juan ante Portam Latinam-i, ingurukoak samurki deritzen omen diote, «San Juan Txiki». Familiko gisa ote? Eguzkiaren jai nagusietan finkaturik dagoan San Juan Bautistarekin bereiztearren ez ote? Hala esango nuke, zeren Gipuzkoan bada beste San Juan ante Portam Latinam bat, Eskoriatzan, Kurutzebarriren hegian, Bolibar ballarako Ereña hauzoaren gainekaldean, Mendiolatik Degurixara bidean —eta ez Aitzorrotz gainean D. Irigoyenek *Ermitas e iglesias de Guipúzcoa*-n dion bezala (dakus: *Anuario de Eusko-Folklore*, tomo XIV, 40-garren horrialdean, 1934)—, inguru haietan, Lazkaumendiko bezala, «San Juan Txiki» izenez ezagutzen dutena da. Beraz, ez dala hain harrigarria esango nuke. Izen horrek bere zergaitia du. Bi ezagunok lekuko.

Lazkaoko «San Juan Txiki»-ren imajiña (liburuaren 162-gn. horrialdean) erromanikotzat jotzen du, bere arpegian, eskuetan eta tunikan gotiku joera argi eta garbi salatzen duelarik ere. Transiziokoak dirudi, gotikura aski sartuago. Eibarko San Pedro-rekin egiten duen konparazioak ezta batere baliorik. Biak ezagutzen dituanarentzat oso desberdiñak dira. Eibarkoak oinetatik bururaino hain bereizgarri duen simetria falta zaio.

J. S. M.